

Igoroin ibaiaren amildegia



Ingurumen-garrantzia

Igoroin edo Musitu erreken urak, Ega ibaian murgildu aurretik, kareharritzko eta kalkarenitazko egituren arteko erreka-zulo fosilez betetako bat zeharkatzen du. Egitura karbonatatu horiek sortu duten eremu karstikoak Euskal Herriko lurrazpiko akuiferorik ederrenetarikoa eragin du. Kareharriak eta buztinak ernaldutako egituretan Arabanz iturria (*Onraitia herrian*) bezalako pol-pol zoragarriak agertu ohi dira. Halaber, Musitu erreka bezalako iturburuak agertzen zaizkigu, Iturrieta haranaren

erdialdean jaioa bera, Maestuko haranera bidean, Igoroin erreka-zuloa sortzen duten Tertiarioko kareharriak eta dolomiak hautsi ondoren. Erreka-zuloaren hondoan, lurraren hezetasunak eta euri ondoko hondarrek lagundurik, landare-estalki garrantzitsu bat agertzen zaigu, ibaiaren alde bietan nabarmen ezberdina bada ere. Ipar ertzean, laiotzean, pagoak dira nagusi eta beste ibaiertzean, eguteraan, erkameztia. Honetan,

ugari dira: muskerra (*Lacerta viridis*), Astakamamila (*Santolina chamaecyparissus*), izpilikua (*Lavandula latifolia*) eta harkaitzetako tea (*Jasania glutinosa*). Erreka-zuloaren hondoan, ibarbato ondo zaindu bat dago. Korridore biogeografiko bat osatzen du eta hegazti espezieetan aberatsa da, hala nola: ibai-enara (*Delichon urbica*) eta haitz-enara (*Ptyonoprogne rupestris*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3,4 km



Ordu 1 eta 15 min



Udalerria:

Arraia-Maeztu

Hurbileko herria:

Musitu



Ibaia:

Igoroin



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo. Lanerako bidea eta bidezidorra uztartzen ditu



907 m



202 m



772 m



89 m



Igoroin ibaiaren amildegia



Non dagoen eta nola heldu

Igoroingo erreka-zuloa Arabako Lurralde Historikoaren hego-mendebaldeko koadrantean dago, Iturrietako mendietan, Arabako Mendialdea eskualdean, Musitu herritik hurbil, Arraia-Maeztu udalerrian.

Bertara Róitegui / Erroitegi edo Musitutik heldu daiteke, baina komenigarria da Musitutik hasia, Maeztutik A-3144 errepidea hartuta.

Bidea Musitu herrian hasiko dugu, San Martin elizatik, hain zuzen ere.

Bertatik, San Martin kalean aurrera hartuko dugu eskuineko lehendabiziko bidea.

Poliki-poliki basoan sartuko gara, duela gutxi Babestutako Baso Eremua izendatutako, non hurrengo aurkituko ditugun: erkametzak, pagoak, otsalizarrak, lizarrak, hurritzak eta edertasun handiko ibar-basoa.

Nolanahi ere, aberastasunaren aldetik, multzo horretako espezierik aipagarriena astigarra da, ugaritasuna dela-eta bereziki, ihar italiarra (*Acer opalus*).

Hartuko dugun bidexka, aldapaz aldapa, Igoroin ibaiaren eskuin ertzetik joango da.

Uda partean, ur emari txikia dela-eta, osinak agertzen dira han hemenka.

800 bat metro egin eta gero, eskuinera utziko dugu udan jolasgune izaten den landa zabal bat.

Bertatik ibaiaren ur gardena ikusteko abagunea dugu eta soinu eta kolore zoragarriak bezain ugariak goza ditzakegu ongi kontserbatutako ibar-baso honetan.

Lizar, sahats, astigar, makal eta hurritzak habitat berezi bat sortzen dute non hainbat animalia espezie ugaltzen diren.

Ibilbideak amidelgiaren goiko aldera eramango gaitu, kareharri- eta kalkarenita-egiturak zeharkatzen ditugula.

Bi koma bost kilometro eginda, bidetik bertatik ur-jauzi zoragarri bat ikusteko aukera izango dugu. Bidexkari jarraituko bagenio, Róitegui / Erroitegi herrira helduko ginateke, baina itzulia lehengo bide beretik egitea aholkatzen dizugu.

Ibilaldia edozein urtarotan egin daiteke, nolanahi ere, euri sasoian eta urtze ondorenean, ibaiaren emari gorenak ematen dio ur-jauziari ikusgarritasuna.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:





Wikiloc

Igoroin ibaiaren amildegia



Igoroin ibaiaren amildegia



Igoroin ibaiaren amildegia

